

## Euskaldunon istorioak



'Ortube' atunontzia itsasoan. Argazkiak: J. A.

Ekimen aberasgarria eta interesgarri hau aztergai izango dugu datorren abuztuaren 30 eta 31ean. Euskal Herriko Unibertsitateak Udako Ikastaroa eratu du Arrantzaleen Museoan. Eta 2023an, 'Ortube'n nabigatzeko aukera ere

Joseba Agirreazkuenaga (UPV-EHU)-ren erreportajea

# 'Ortube' (Bermeo)

## Egurrezko atunontzi enblematikoaren berreskuratzea 2016-2022

**B**ERMEOKO portuan loturik, ur-bide batetik flotazio-lerroaren paretik ura sartu eta hondoratzen hasi zenean, 2016ko apirilaren 22an Bermeoko Udalak ontziolara atera zuen eta ontzia berreskuratzeko proiektu teknikoa burutu ondoren, *Ortube* ontziaren lagunak lanean hasi ziren. Zergatik? Egurrezko ontziolen eta itsasontzien ondare erakusle ezin hobea zelako. Euskal kostaldean azken mila urteotan garatu zen itsas zibilizazioaren adierazpen bizi-bizia. Helburua garbia zen: *Ortube*, berriz ere, itsasoratu, XXI. mendean ere, arrantza garaiak gaurkotuz.

Herri ekimena abiatu, ondare historikoa biziberritzeko, 2019an elkartea sortu zen: *Ortube* ontziaren lagun Elkartea (

Atunontziaren izena eta jatorria adierazten duen idazkuna.

be.us), Juan Andres Diez de Ulzurrun, ingeniari industrial eta egurrezko ontzietan aditua, buru.

Borondatezko lana da ekimenaren oinarri oinarria. Elkarren arteko lanaren bidez, esperientzia komunitario honek bere horretan garrantzia du, ezina ekinez eginga bihurtzeko. Honezker, 9.000 ordutik gorako lana agerikoa da, Jesus Urkidiren kalkuluaren arabera eta laster batean amaiera, hau da, itsasontzia berreskuratu eta segurtasun-baldintzetan nabigatzea. *Ortuberen* webgunean argazki bidez erakusten da lanaren bilakaera.

Bestalde, berreskuratze eta eraberritze lanak irauten duten bitartean, ontzia bisitatzeko aukera dago. Azken arrain azokako egunetan, adibidez, 120 pertsonatik gora egon ziren *Ortuben*. Elkarteko gidari, azalpenak ematen zeudela. Bertatik bertara arrantzaleen bizimoduaz, egunerokoaz jabetzen gara bertan.

Esperientzia aberasgarria eta ekimen interesgarri hau, orain, aztergai izango dugu, datorren abuztuaren 30 eta 31ean. Euskal Herriko Unibertsitateak Udako ikastaroa eratu du Arrantzaleen Museoan. Lehenago ere, 2015ean, Miren Gabantxo irakaslearen zuzendaritzapean, Bermeoko Arrantzaleen Museoan, EHUko Udako Ikastaro batean, egurrezko itsasontzizigintzari buruzkoa izan zen. Oraingo honetan *Ortube* ekimen zehatza izango dugu aztergai.

**ORTUBE, HASIERAN, 1978AN** *Ortube* atunontzia Bermeoko Muruaga ontzian, (Jesus eta Julio Muruaga eta Anjel Gorriñoren sozietatea) 1978ko otsailean hasi zen egiten. Egurrezko egiturazko ontzia izango zen eta beraz euskal kostaldean azken mila urteotako ontziolen zereginaren ildoan. Horra ba, egiteko modu jarraitu batean ekingo zitzaion baina atunontzi ederra eta handia izan-

go zenez gero, berrikuntzak sartu ziren ere.

Egurrezko ontziaren hasierako lana basoan hasten da. Bertan arbolak egokiak aukeratu behar dira, sarritan aurretik begiz jota egoten direnak, luzera eta zabalari begiratu. *Ortube* egiteko haritzak, eukalitu zuzen zuzenak, akaziak eta era guztietako egurrak erabili ziren, ingurukoak eta ez hain urrekoak ere. *Ortube* atunontzi ederra atera zen, 36 metroko luzeran, zabaleran 7,60 m. eta 200 TBR tonelajekoa. Neurri hauetan, XVI. mendean ere egiten ziren kargarako belaontziak eta gaurko honek iraganeko ezagutzeko aukera ere ematen digu.

31.212 euro gastatu ziren egurretan eta 19.807 euro soldatetan. Urte amaierako, ontzia uretan zegoen eta ondoren motorra, Echevarria-Burmeister motorra (700CVko potentziaduna, motela eta bi denborakoa) eta bestelako tresna elektronikoz hornitu zen, guztira beste 121.326 euro gehiago. 1979ko maiatzean itsasora abiatu zen, arrantzan, bokarta eta gero hegaluzetan.

*Ortube* atunontzi berria eraikitzeko Pedro Ortube-Begoña Larruzea, Alberto Ortube-Maria Jesús Poncela eta Juan Ramon Egaña-Bibiana Rodriguez elkartu ziren, *Alto Urkiola* eta *Nuevo Digno de Querer* izeneko itsasontzietan baja eman ondoren. 1984an Egañaren ondokoak sartu ziren jabetzan eta 1995ean Jose Antonio Etxebarria eta Milagros Luzarraga ere jabetzak bihurtu ziren.

Antxoetan ere ibili ondoren, batez ere hegaluzea non, *Ortube* han. Horrela, Atlantikoan barrena ibili zen, Afrikako kostaldetik Irlandako kostaldetara. Azken urteetan Kanariar uharteetan ibili zen arrantzan. P. Ortube izan zen lehen patroia eta J. A. Etxebarria, azkena, 12-16 tripulatuak zirela. 2003an, Bermeoko Udalak *Ortube* erosi zuen 90.151 euro ordaindurik.

**BERRIKUNTZAK EGURREZKO ONTZIGINTZAN, JOHAN AKURIORREN GARAIAN** *Ortube*, 1.000 urte baino gehiagoko esperientzia duen ontzizigintzen historiaren azken erakusle indartsuenetako bat dugu. Bermeoko marinelen Kofradiaren, 1353 urteko Ordenantzetan jasotzen da, ontzien eta traineruen arteko bereizketa. Baina Bizkaiko itsas bazterrean arrantzan eta merkataritzan lehenagotik hasi ziren. XI. mendetik aurrera dokumentaturik dugu eta Bermeoko armarrari horren lekuko. Europa iparraldeko itsas portuei begira elkar lehiatu eta truke berrikuntzak egin ziren ontzi handietan eta euskal itsas zibilizazioaren garapena goi mailara igo zen. Atlantiko-ko nao eta koka delakoak, garia eta gatzaren garraioak egiten Mediterraneoan joaten ziren neguan, Genova eta Siziliako portuen arteko zerbitzuak egiten. Joan-etorri hauetan, Mediterraneoeko itsasontzietako berrikuntzak ikasi ondoren, Bizkaiko itsas bazterretako ontzi berriek eraiki ziren XV. mendean barrena: Aurrerantzean ontzi berriak egiteko, erdiko ardatzetik abiatuz, ontziaren egurrak bata besteari tope eginez

## Euskaldunon istorioak



'Ortube' berreskuratzeko lanetan dihardutenak hamaiketako egiten.

lotuko ziren eta ez bata bestearen gain. Lema popan, hiru masta, erdian karratu handia eta triangeluzko latindarra atzean. Aldeko eta ez hain aldeko haizeak atrapatuz, ontzi berriak prest zeuden edozein itsaso eta ozeanoetan nabigatzeko.

Johan Akurio bermeotarra horrelako itsasontzietan trebatu zen, zientzia gizona zen, mundu berriak ezagutzeko grina zuen eta, Elkanoekin batera, mundu bira burutu zuen, duela 500 urte, 1522an. Sekulakoa izan zen, munduaren biribil tasuna frogatuz. Munduaren ikuskerarabaldatu zen, aurrerantzean, arlo guztietan.

**ORTUBE, ETORKIZUNEN EGITASMOA**

Elkartearen webguneak zehatz-zehatz azaltzen du ia 7 urte hauetako berrikuntza lana. Bilakaera honetan itsas zibilizazioa zabaltzeko hezkuntza-proiektu gisa ere ageri da *Ortube*. Hasieratik hezkuntza-transferentziaren eta gizarte-ekintza komunitarioaren dimentsioa duen proiektua izan da. Zurezko erriberrako ontziolen ondarea berreskuratzeko eta babesteko proiektua da. Etniker taldekoek itsasaldeko ikerketa etnografikoari ekin diote. Biziberritzealdi guzti honetan, *Ortube*

irekita dago eta ontziola bisita daiteke, zaharberritzearen prozesua bertatik bertara ezagutzeko.

Jendartearen ekimenez, berreskuratzeko prozesu honetan, egurrezko itsas ondarea, hain errez galtzen dena, iraunkorra bihurtzen ari da. *Ortube*, Bermeon egin eta asmatu zen oso-osorik eta propulsio motorra ere tokiko industriaren prototipoa dugu. Baina itsasontziak ez dira egiten lehorrean egoteko, itsasoan nabigatzeko baizik eta aurrerantzean, Bermeoko Arrantzale Museoaren luzapena itsasoan ere izango delakoan gaudu.

Baina horrez gain, *Ortuberen* egitasmo honek balio digu baxurako arrantzaren iraunkortasuna azaltzeko. Eta honek bete-betean Nazio Batuen Garapen Iraunkorren aldeko helburuekin bat egiten du.

**EGITASMOA AZTERGAI, EHUKO UDAKO IKASTAROAN**

*Ortuberen* egitasmo honetan, Bermeoko Udala, Arrantzale Museo eta Bizkaikoa, (Bizkaiko Foru Aldundiaren Museoak eta ondarea kudeatzeko erakundea), partaide ditugu. Esperientzia luze honen ondorioz, oraingoan egitasmoa aztertzeko unea ere heldu da,

**IDAZLEA**

JOSEBA AGIRREAZKUENAGA ZIGORRAGA (1953).

Historia garaikidean Katedraduna eta ikerketa taldeburua (UPV-EHU) eta Eusko Ikaskuntzan, historia sailburua, presidenteordea eta presidentea (1992). ICHRPiko presidentea, (International Commission for the History of Representative and Parliamentary Institutions), Nazioarteko zientzi historikoen elkartean (CISH-ICHS). 2019ko Euskadi Ikerkuntza Saria. 24 liburu argitaratu ditu, azkenak, 'The Making of the Basque Question' (2011), 'Euskal Herritarren burujabetza' (2012) eta 'De los vascos sin historia a los vascos con Historia' (2017).



*Ortube* itsasoratzeko. Horra laburbilduz, EHUko Udako Ikastaroen baitan Arrantzale Museoan eratutako den ikastaroaren edukia:

Abuztuaren 30ean, Bermeoko alkateak ikastaroaren hasieran *Ortuberen* etorkizunari buruz berba egin ondoren, Juan Andres Diaz de Ulzurrun ingeniariak, Elkartearen buruak, ia 7 urte hauetan egingakoa aztertuko du, berreskuratzeko eta zaharberritze prozesuan, nabigatzeko gai bihurtzeko *Ortube*. Ondoren Kepa Aranburu itsas ingeniariak gaur egun Astilleros de Bermeon egurrezko ontzizintza zertan dagoen arakatu du. Juan Apraiz merkataritzako itsas kapitaina eta ikertzaile adituak, egurrezko ontzizintza zein arrantzaren, *Ortuberen* garaiko arrantzaren egoera aztertuko du. Ondoren, Robert Ugalde, UPV-EHUko irakasleak, *Ortube* ondoko Bermeoko atunontziak munduan barrena egiten dutena arakatu du.

Hurrengo egunean, Jesus Urkidi ekonomialariak eta Elkarteko idazkariak, arrantzaleak izango ditu aztergai. Eguneroko bizimodu itsasontzietan. Marea luzeetan, zelan garbitzen eta lehortzen zituzten jan-tziak, batez ere barrukoak, zer egiten zuten aisialdi eta jolasaldietan, jai giroak zein erlijio praktikak. Gero, Miren Gabantxo UPV-EHUko irakasleak Itsas ondarea gazteriaren begietatik landuko du. Horretarako, honezkero ehun bat Unibertsitateko ikasle ikasgeletatik atera ditu Bermeora etortzeko, batzuentzat lehengo aldiz, *Ortuberen* inguruko ezagutzak eta gogoetak sortzeko.

Azkenik, ikastaroko partaide guztientzat azken ikasgaia *Ortuberen* sartzia izango da eta bertatik bertara ezagutzeko aztertutako guztia. Matrikula egiteko zabalik dago epea eta ondoko helbideetan sar daiteke: [www.ortube.eus](http://www.ortube.eus) edo EHU Udako ikastaroan: <https://www.uik.eus/eu/jarduer/orcube-bermeo-egurrezko-itsasontzi-enblematikoaren-berreskuratzea-berritzea-2016-2022>

Matrikulatzen diren guztiak, eza gutza eta esperientzia berritzailea jasoko dute, etorkizun hurbilean misio berri batean partaide bihurtuko direlarik eta horrez gain, 2023an, *Ortuberen* nabigatzeko aukera ere edukiko dute, inork baino lehen. ●



Juan Apraiz, 'Ortube'-ren berri ematen.

CLICK: [sabinoarana.eus](http://sabinoarana.eus)

ATEAK ZABALIK PUERTAS ABIERTAS

**LAU**

**HAIZETARA**

**Erabateko sarbidea gure eduki digitaletara:**

artikulu historikoak, argazkiak, agiritegiko dokumentuak, biografiak, ikus-entzunezkoak...

**Acceso libre a nuestros contenidos digitales:**

artículos históricos, fotografías, documentos de archivo, biografías, audiovisuales...

